

ABIZENAK

Arzubieta: Bizkai'koa da.
Arrizko zubiak dagoen lekua esan gura dau.
Elorrio'n agertzen da 1575n. urtean Arzubialde lez.

Arraitz: Ulzama'n agertu zan eta andik Gipuzkoa'ra.
Arro-ta -aitz dira osokiak. Arroa mendi txikia da eta aitz ba-dakigu zer dan. Orduan aitzean amaitzen da menditxua da.
1690n. urtean agertu zan idatzita Gipuzkoan.

Arralde (Arraldi): Atxa argi dan aldea edo tokia.
Naparroa'n agiri da 1362n.urtean.

Arrana: Gamiz'en dago etxe bat izen au daukana. Izan leiteke arana'ren aldakuntza baiña ziurrago Arro- eta -ana toki-atziakia: menditxua.
Getariar bat agiri da abizen onegaz 1474n. urtean.

Arrate: Elorrioren. Bedia'n, Markiña'n eta abar agiri da baiña Lizartza'n dagoz Arrate-goiena ta -barrena.
Arri-lekura atea da. Elorrio 1528.

Arratia: Bizkai'ko aran eder baten izena da. Gipuzkoan eta Bizkai -osoan toki askotan dago.
Lopez Mendizabal'ek diñoan lez, barruti edo bedar-lekua da egokiena, baiña izan liteke arro edo mendi txiki asko (-ti) dagon lekua.
Segura'n daroa batek 1374n. urtean.

Arretxe: Arrizko etxea.
Getaria'n agertzen da 1474n. urtean.

Arregi: Euskalerririk geienean agertzen da, batez Gipuzkoa-inguruan.
Arria dagon egia edo arrizkoa dan aldapa esan gura dau.
Olako tokian dagoan etxea.
1590n.urtean Balladolid'en idatzia.

Arrese: Bidania-inguruan agertzen da eta Otxandio'n dogu ezaguna.
Arretxe'ren aldakuntza dala dirudi.
Oñate'n daroa batek 1461n. urtean.

Arriaran: Ormaiztegi inguruan dau jaiotza.
Arrizko ibarra esan nai dau (Arana).
1384n.urtean daroa batek Segura'n.

Arribaltzaga: Argentina'n agertzen da eta arri baltzak dagoen tokia esan nai dau.

Arrigorriaga: Erria Bizkaia'n. An Jaun Zuria'ren gudaldi mitikoa eta odolez arriak gorri.
Arriak gorri dagoen lekuan esan nai dau.

Arruabarrena: Mendi-muño baten barrenean dagoana.
Gipuzkoan agertu zan eta gaur Bizkaian be ba-dago.
Argentina'n be bai. Tolosa 1803n. urtean.

Askasibar: Angiozar'en, 1624.
Askak edo aritz antzeko landarak daukazan ibarra.

Askorbe: Aitz eta gorri, baiña au ez da margoa, utsa baiño: "Gose gorria ikusi dogu". Orduan: Aitz utsaren bean dagona.
1773n. urtean Gatzaga'n agertzen da.

Astaburuaga: Asa-sasia da eta aseta sasi-lekua.
Olakoaren goian dagoan etxearen izena litzake au.
Gatzaga'n agertzen da 1603n. urtean.

Asteasu: Aseta sasi-lekua izanik, olako asko dagon lekua izango da -tsu atzizkiak agertzen dauan lez.
1531n. urtean Iruña'n daukagu.

Astobieta: Aste sarritan arte'ren ordezkua izaten da.
Asto-bideta arteak dagozan lekura bideak dira.
1479n. urtean Segura'n.

Astobiza: Aiala-aldean dabil zabalen, baiña Berriatua'n be bai.
Astobi-sasitza obia edo lekua ba'da, -tza atzizkiak tokia ta ugaritasuna agertzen dauz.
1733n. urtean agertzen da idatzita Bilbao'n.

Astola: Aseta sasiak izan ezkerro, -ola atzizkoak ugaritasina adierazten dau. Sasi asko dagon lekua. Elorrio 1625.

Astondo(a): Toki izen au zabal dabil: Zeanuri'n etxea, Gorliz'en tokia...
Aste- artea ba'da, arte-ondoa esan gura dau, baiña aitzia izan ezkerro, atxaren ondoa...
Aramaiona'n 1808n. urtean.